

HONDAKINEN BATZORDEA

Data: 2013-10-22
Ordua: 19:00 – 21:00
Lekua: UDALETXEA

BERTARATUTAKOAK:

- ✓ Mikel Ortega (BILDUko zinegotzia)
- ✓ Jose María Garmendia (UPNko zinegotzia)
- ✓ Carlos Peña (Biok Igantziko langilea)
- ✓ Juana M^a Izeta (Bertan)
- ✓ Peio Obregozo (Iruritako alkatea)
- ✓ Karlos Beristain (Arizkungo alkatea)
- ✓ Mikel Mujika (Amaiurko herria)
- ✓ Izaskun Gortari (Oronozko herria)
- ✓ Miren Meoki (Hondakin teknikaria)

GAI ZERRENDA:

1. Aurreko aktaren onespenea.
2. Frigoliburutegia martxan. Datak.
3. Kontenedoreen mugimenduak
4. Kontenedoretan informazio kartelak
5. Konpost kanpainaren adjudikazioa
6. Arropa eta olio kontenedoreak
7. TEEH kanpaina azaroan
8. Baztan-Bortziri-Malerrekako egutegia
9. 2014ko aurrekontuak
10. Komertzianteen inkesta

1.- Aurreko aktaren onespenea.

Aho batez onetsi da.

2.- Frigoliburutegia martxan. Datak.

Aurreko batzorde bileran solastutakoaren harira, "Frigoliburutegi ibiltaria" martxan jarri da. I Frigoak ibilbidea Amaiurren hasi duela aipatzen da eta datozen asteetarako egutegia aurkezten da, momentuz egitasmoan parte hartzeko nahia agertu duten herriak aipatuz.

Mikel Mujikak (Amaiur) frigoa Amaiurren egonik ere honen berririk ez zuela aipatzen du. Eskolan dagoenez argi dago herritar guztiek ez dutela honen berri izan. Egitasmoaren nondik norakoak azaltzen zaizkio.

Karlosek (Arizkun) aipatzen du eskoletatik etxeetara bidali den eskutitza herritar guztiei zabaltzea ongi legokela.

Egitasmoaren informazioa eta eskutitza alkate guztiei bidaliko zaie.

COMISIÓN DE RESIDUOS

Fecha: 22-10-2013
Hora: 19:00 – 21:00
Lugar: AYUNTAMIENTO

ASISTENTES:

- ✓ Mikel Ortega (concejal de BILDU)
- ✓ Jose María Garmendia (concejal de UPN)
- ✓ Carlos Peña (Biok Igantzi)
- ✓ Juana M^a Izeta (Bertan)
- ✓ Peio Obregozo (Alcalde de Irurita)
- ✓ Karlos Beristain (Alcalde de Arizkun)
- ✓ Mikel Mujika (Amaiur)
- ✓ Izaskun Gortari (Oronoz)
- ✓ Miren Meoki Plaza (Técnico residuos)

ORDEN DEL DIA:

1. Aprobación del acta anterior.
2. Frigobiblioteca en marcha. Fechas.
3. Movimientos de contenedores.
4. Carteles informativos en contenedores
5. Adjudicación campaña compostaje
6. Contenedores de ropa y aceite.
7. Campaña RAEE en noviembre
8. Calendario Baztan-Bortziri-Malerreka
9. Presupuestos 2014
10. Encuesta comerciantes

1.- Aprobación del acta anterior.

Se aprueba por unanimidad.

2.- Frigobiblioteca en marcha. Fechas.

Tal y como se comentó en la anterior reunión de la comisión, se ha puesto en marcha la "Frigobiblioteca itinerante". Se comenta que ha empezado su andadura en Amaiur y se presenta el calendario propuesto para las próximas semanas junto con los pueblos que han mostrado interés en participar.

Mikel Mujika (Amaiur) comenta que no había oído hablar del tema y es curioso porque el frigorífico está en Amaiur. El frigorífico está en la escuela y está claro que la información sobre el mismo no ha llegado a todos y todas. Se le explica en qué consiste la iniciativa.

Karlos (Arizkun) comenta que estaría bien hacer llegar a todos los habitantes de cada pueblo la carta que se ha enviado desde los colegios a las familias.

Se enviará la información a todos los alcaldes.

3.- Kontenedoreen mugimenduak.

Herri bakoitzeko kontenedoreen gaur egungo kokapena eta kopurua eta hondakin sailak konpost kanpainarekin lotuta egin nahi duen hauen berrantolaketaren ondorioz puntu eta kopuru berrien proposamena duen dokumentua (taulak) erakusten da. Erabili diren erizpideen artean aipatzen dira: puntu osotuak izatea (hondakin mota guztiak biltzeko kontenedoreak dituzten puntuak) eta puntuak herrigune guztietan eta auzo sarrera-irteera guztietan egotea, bertzeak-bertze.

Kontenedoreak kentzeko erabiliko den prozedura ere aipatzen da. Kanpainaren irudiak dituen kartel bat jarriko da kendu behar den kontenedore edo zaborrontzi bakoitzean aste pare batez guti-goiti-beheiti, zaborrontzia kenduko dela abisatuz eta punturik hurbilena zein den aipatuz.

Irurita eta Elizondoko herriguneak eta poligono guñeak momentuz kanpoan utzi direla aipatzen da.

Peiok (Irurita) komentatzen du merenderoetan kontenedore puntuak kentzea hobe iruitzen zaiola zabortegei bihurtzen direlako (boluminosoak...) eta gehiengoan iritzia berdina da. Bortzirietan ere erabaki berdina hartu zutela komentatzen da.

Honen harira aipatzen da kartel bat egin beharko litzatekeela merenderoetan jartzeko (jendeak bere zaborrak eraman ditzala erranez)

Herrigunetik kanpo gelditzen diren bilketa puntuak orokorrean oso zikinak egoten direla eta jendeak denetik botatzen duela ere aipatzen du Peiok eta Karlosek dio ongi legokela herri bakoitzean puntu zikin hauei buruzko argazki erakusketak egitea jendea kontzientziatzeko.

Azkenean alkate guztiei dokumentua pasako zaiela eta beraiek aztertu ondoren proposamenak bidaliko dituztela erabakitzen da, hau lehen bait lehen egin behar dela aipatzen da.

3.- Movimientos de contenedores.

Se pasa un documento con el número y la ubicación de los contenedores en cada pueblo y la propuesta de reubicación que ha hecho la sección de residuos para realizar junto con la campaña de compostaje. Se comentan los criterios que se han tenido en cuenta para realizar la misma que han sido: crear puntos completos (con recogida de todas las fracciones de residuos), colocar puntos de recogida en todos los núcleos urbanos y en las entradas- salidas de todos los barrios, entre otros.

Se informa sobre el proceso que se seguirá antes de retirar los contenedores. Se comenta que se colocará un cartel con la imagen de la campaña en cada contenedor que se pretenda retirar avisando de su próxima retirada e informando sobre el punto de recogida más cercano a este.

Se comenta que de momento se han dejado de lado los núcleos urbanos de Elizondo e Irurita y los polígonos industriales.

Peio (Irurita) comenta que le parece mejor quitar los puntos de contenedores de los merenderos porque se convierten en vertederos (boluminosos...) y la mayoría opina lo mismo. Se menciona que en Bortziriak tomaron la misma decisión.

Al hilo de esto se plantea la necesidad de hacer un cartel para poner en los merenderos pidiendo a la gente que se lleve sus residuos.

Peio también dice que los puntos de recogida que quedan fuera de los núcleos urbanos en general suelen estar muy sucios y la gente suele echar de todo y Karlos comenta que estaría bien hacer una pequeña exposición fotográfica en cada pueblo para enseñar estos puntos sucios e intentar concienciar a la gente.

Al final se decide que se pasará la información con la propuesta de reubicación de los contenedores a todos los alcaldes y que después de analizar la misma, estos enviarán sus aportaciones. Esto se deberá hacer cuanto antes.

4.- Kontenedoreetan informazio kartelak

Aurreko bileran aipatu zen birziklapenaren inguruko informazio faltari erantzunez, Bortziri eta Malerrekako Mankomunitateekin elkarlanean egindako kartel-pegatinak edukiontzietan jartzen hasi gabela komentatzen da.

Pegatina hauek erakusten dira eta kartel orokorra (bilketa desberdinei buruzkoa) non jarri daitekeen pentsatu behar dela komentatzen da.

Karlosek (Arizkun) proposatzen du bertzerik ez bada alkateei banatu eta hauek herri bakoitzean nola zabaldu erabakiko dutela.

Mikelek (Amaiur) elkarte gastronomikoei banatzea proposatzen du eta Peiok (Irurita) dio eskoletako jangeletan eta Pilarreko eta zahar etxeko sukaldeetara ere eramaten ahal direla.

5.- Konpost kanpainaren adjudikazioa

Konpost kanpaina egiteaz arduratuko den enpresaren adjudikazioa egin dela aipatzen da eta hau VERMICAN Iruñeko enpresari esleitu zaiola komentatzen da, eta eman diren atzerapen batzuk direla medio, honekin urtarrilean hasteko asmoa dagoela aipatzen da.

6.- Arropa eta olio kontenedoreak

Bide-Lagun taldeak arropa bildu eta konpontzeko proposamena luzatu zion Mankomunitateari eta akordio batera iritsi ondoren beraiek Baztan Bortziri eta Malerrekako arropa bilketaz arduratuko direla aipatzen da. Kontenedoreak jarriko dituzte horretarako eta Baztango Udalak kontenedore batzuk erosten lagunduko diola aipatzen da. 10 bat kontenedore jarri nahi dituzte eskualde osoan.

Olioari dagokionez, Ekograsek Baztanen 4 kontenedore gehiago jarriko dituela aipatzen da. Hauen kokapenaren berri ematen da:

- Baztan Berri auzoan (Elizondo)
- Jaime Urrutia 55 (erreka bazterrean)
- Oronozen suhiltzaileen aitzinean
- Erratzun sarrerako pisuetan.

7.- TEEH kanpaina azaroan

Nafarroako Ingurumen Baliabide Zentruaren laguntzaz traste elektriko eta elektronikoen hondakinen inguruan egin behar den kanpainaren berri ematen da.

4.- Carteles informativos en contenedores

Atendiendo a la falta de información sobre el reciclaje mencionada en la reunión anterior, se comenta que se han empezado a colocar carteles-pegatinas elaborados junto con las Mancomunidades de Bortziriak y Malerreka en todos los contenedores. Se muestran las pegatinas y se plantea la necesidad de decidir donde colocar el cartel general que hace referencia a las distintas recogidas.

Karlos (Arizkun) comenta que si no hay otra, se pueden repartir a los alcaldes y estos decidirán qué salida darles en cada pueblo.

Mikel (Amaiur) propone repartir los carteles a las sociedades gastronómicas y Peio (Irurita) añade que también se podrían repartir en comedores escolares y cocinas del Pilar y de la residencia de ancianos.

5.- Adjudicación campaña compostaje

Se comenta que se ha adjudicado la realización de la campaña de compostaje a la empresa VERMICAN de Pamplona y que después de una serie de retrasos, se prevé empezar con esta en enero.

6.- Contenedores de ropa y aceite.

Se comenta que el grupo Bide Lagun le planteó a la Mancomunidad su interés en prestar el servicio de recogida de ropa usada en la zona. Tras llegar a un acuerdo, estos se encargarán de la recogida para lo que pretenden colocar unos 10 contenedores en toda la comarca. El ayuntamiento de Baztan les ayudará en una parte de esta compra.

En cuanto a la recogida de aceite usado, se menciona que Ecogras va a colocar 4 contenedores más en Baztan. Se informa sobre la ubicación de los mismos:

- Barrio Baztan Berri (Elizondo)
- Jaime Urrutia 55 (orilla del río)
- Oronoz, delante de los bomberos
- Erratzu, en los pisos de la entrada.

7.- Campaña RAEE en noviembre

Se informa de la campaña sobre residuos de aparatos eléctricos y electrónicos que se va a realizar a través del Centro de Recursos Ambientales de Navarra (CRANA).

Traste elektriko eta elektronikoak saltzen dituzten denden bitartez eginen dela aipatzen da eta publiko guztiari zuzendua egonen dela.

kanpainaren nondik norakoak azaltzen dira era laburtuan jendea jakinaren gainean egon dadin: funtsean komertzioei informazio-kontzientziario folleto eta eskutitzak banatu eta hauen konpromezu eta atxikimenduak jaso ondoren, publiko guztiari zuzenduriko mikroipuin lehiaketa batean datza kanpainak, gero sariak komertzio hauetan gastatzeko bonoak izanen direlarik.

8.- Baztan-Bortziri-Malerrekako egutegia

Urtero bezala, Baztan- Bortziri-Malerrekako hondakin bilketen inguruko egutegia eginen da. Aurtengoan jendea edo jende taldeak aukeratu dira argazkietarako gai bezala eta Baztandik 4 talde desberdin sartu behar ditugula eta proposamenak egitea planteatzen da.

Udaleko hondakin sailetik honako aukerak planteatzen dira:

- “Baztango ikasleek beren hamaiketako hondakinak Boc’n roll berrerabilgarriaz ordezkatu dituzte”
- “Baztango merkatariak kartoia birziklatzen dute”
- “Baztanen hondakinak murrizten dira liburuak elkartrukatzuz” (Frigoliburutegia)
- Baztan Rugby taldea
- Abesbatza edo koro txikia...

Bileran atera diren bertze aukerak:

- Baztango Mendigoizaleak
- Soka-tira taldea

Izaskunek (Ornoz) aipatzen du egutegiaren zozketa sistema aldatu beharko dela sarituak ez direlako inoiz agertzen.

9.- 2014ko aurrekontuak

Datorren urteko aurrekontuetan pentsatzen hasi behar dela aipatzen da.

Se comenta que la campaña se realizará a través de los establecimientos que venden aparatos eléctricos y electrónicos y que estará dirigida al público en general.

Se explica resumidamente la campaña que consistirá en el envío de cartas más folletos de concienciación a los establecimientos mencionados y después de recibir el compromiso y adhesión por parte de estos, se convocará un concurso de microrelatos dirigido al público general. Los premios del concurso consistirán en bonos a gastar en los establecimientos adheridos.

8.- Calendario Baztan-Bortziri-Malerreka

Una vez más, desde Baztan-Bortziriak y Malerreka se está pensando publicar el calendario sobre residuo. Esta vez se ha pensado utilizar como tema la gente o grupos de gente. Se comenta que desde Baztan tenemos que proponer a 4 grupos o colectivos y se plantea hacer proposiciones.

Desde la sección de residuos del Ayuntamiento se plantean las siguientes opciones:

- “Los alumnos/as de Baztan sustituyen los residuos de sus almuerzos por el Boc’n roll reutilizable”
- “Los comerciantes de Baztan reciclan el cartón”
- “En Baztan reducimos nuestros residuos mediante el intercambio de libros” (Frigobiblioteca)
- Club Rugby Baztan
- La Coral, Koro txiki...

Otras propuestas que se plantean en la reunión:

- Baztango Mendigoizaleak
- El grupo de Soka-tira

Izaskun (Ornoz) menciona que habrá que cambiar el sistema del sorteo del calendario puesto que los premiados no aparecen nunca.

9.- Presupuestos 2014

Se comenta que hay que empezar a pensar en los presupuestos para el año que viene.

Momentuz sartu beharrekoa:

- Konpost kanpaina
- Kontenedoreen erosketa
- Eraikin publiko eta ikastetxeetarako ontzi eta kontenedore txiki gurpildunak
- Eraikuntza eta eraispen hondakinendako bilketa puntuaren egokitzea eta martxan jartzea
- Bajilla berrerabilgarria
-

Peiok aipatzen du ongi legokela kontenedore puntuak txukuntzeko (hesitura bat egin...) eta hauen mantenimendurako partida bat sartzea

Carlos Peñak (Biok Igantzi) dio bera ez dagoela erabat ados Bortziri eta Malerrekan egin diren txukunketa hauekin eta horri buruz ongi solastu behar dela egin aitzinian.

10.- Komertzianteen inkesta

Bertaneko komertzianteei inkesta bat pasa zitzairen atez-ateko kartoi bilketa zerbitzua baloratzeko intentzioz eta Bertaneko zuzendaritza taldekoei egindako lana eskertu ondoren, honen emaitzak aurkezten dira.

Alde batetik erantzun duten komertzioen kopurua txikia dela komentatzen da. 45 inkesta jaso ditugu eta Bertanen ia 80 komertzio daude. Beraz, emaitzak ez dira arras esanguratsutzat jotzen.

Erantzundakoen artean gehiengoak zerbitzua ezagutzen duela aipatzen du eta erdiak guti goiti-beheiti erabiltzen duela. Ez erabiltzeko arrazoiak artean gehiengoak gutti sortzearena eta kaleko edukiontzietara botatzearena aipatzen du eta gutti batzuk kartoa pilatzeko leku faltaz arrazoitzen du ezezko erantzuna.

Juana M. (Bertan) jendearen aldetik harrera ona nabaritu dutela aipatzen du eta bere iritziz orokorrean jendea zerbitzuarekin kontent dagoela erraten du.

Carlosek (Biok Igantzi) bilketa egiten zaien komertzioen zerrenda osotua ekarriko duela erraten du.

De momento lo necesario:

- Campaña compost
- Compra contenedores
- Cubos y contenedores pequeños con ruedas para los centros educativos y edificios públicos.
- Acondicionamiento y puesta en marcha de un punto para la recogida de residuos de construcción y demolición.
- Vajilla reutilizable.
-

Peio menciona que estaría bien habilitar una partida para arreglar (hacer una zona cerrada...) y para el posterior mantenimiento de las zonas de contenedores.

Carlo Peña (Biok Igantzi) comenta que el no está de acuerdo con las rehabilitaciones o mejoras que se han hecho en Bortziriak y Malerreka en las zonas de contenedores y que habrá que hablar del tema antes de hacer nada.

10.- Encuesta comerciantes

Se pasó una encuesta a los comerciantes de Bertan con la intención de valorar el servicio de recogida de cartón puerta a puerta. Después de agradecer la labor realizada por el grupo directivo de Bertan, se comentaron los resultados obtenidos.

Por un lado, el número de comercios que ha respondido es bastante bajo. Se han recogido 45 encuestas de casi 80 comercios que están registrados en la asociación Bertan, por lo que los resultados no se consideran muy representativos.

Entre los que han respondido, la mayoría conoce el servicio y aproximadamente la mitad lo utiliza. Entre las razones para no utilizarlo la mayoría alega generar poca cantidad por lo que utiliza los contenedores de la calle. Unos pocos dicen no utilizar el servicio por no disponer de espacio para almacenar el cartón.

Juana M. (Bertan) destaca la buena disposición de la gente en general y cree que en general los comerciantes están contentos con el servicio.

Carlos (Biok Igantzi) dice que traerá el listado completo de los comercios a los que se les hace la recogida.

Udaleko hondakin sailetik baloratuko da ia komertzio guztietara pertsonalki joatea komeni den hauen iritziak, beharrak, kezak eta iradokizunak biltzera.

Hurrengo bilera: Azaroaren 26an, 19:00etan

Desde la sección de residuos del Ayuntamiento se valorará la conveniencia de acudir personalmente a cada comercio con el fin de recoger las opiniones, necesidades, dudas y propuestas de los comerciantes.

Próxima : Azaroaren 26an, 19:00etan